

Nafarroako jaiotzen onomastika
Ugalkortasunaren eta Jaiotza Tasaren Estatistika
2025. urtea. Behin-behineko datuak

Aimar, Mateo eta Martín, eta Lucía, Nahia eta Sofía dira izen ohikoenak 2025ean Nafarroan jaiotakoen artean

2026ko maiatzak 15a

MAIZENIK JARTZEN DIREN IZENAK

Nesken kasuan, *Lucía* da berriz ere erregistratutakoen artean lehenengo dagoen izena, *Nahia* eta *Sofía* bigarren lekuan daude eta *Laia* da hirugarren izen ohikoa. Mutilen kasuan, *Aimar* da gehien jarritako izena, eta atzetik *Mateo* eta *Martín*¹ daude bigarren eta hirugarren lekuan, hurrenez hurren. Nafarroako Estatistika Erakundeak (Nastat) 2025ean egindako Nafarroako Ugalkortasunaren eta Jaiotza Tasaren Estatistikako behin-behineko datuetatik abiatuta atera dira emaitza horiek.

1. TAULA

Nafarroan jaiotakoen artean ohikoenak diren izenen bilakaera (2020-2025).

NESKAK						MUTILAK					
2025	2024	2023	2022	2021	2020	2025	2024	2023	2022	2021	2020
LUCÍA	LUCÍA	LUCÍA	LUCÍA	NAHIA	LUCÍA	AIMAR	MATEO	AIMAR	MATEO	MARTÍN	JULEN
NAHIA	SOFÍA	IRATI	JUNE	ANE	ANE	MATEO	AIMAR	MARTÍN	MARTÍN	MATEO	MATEO
SOFÍA	ANE	SOFÍA	ANE	IRATI	IRATI	MARTÍN	MARTÍN	MATEO	OIHAN	JULEN	MARTÍN
LAIA	NAHIA	JUNE	IRATI	LUCÍA	SOFÍA	JULEN	JULEN	IZAN	JULEN	HUGO	AIMAR
JULIA	IRATI	LAIA	LAIA	MARTINA	JUNE	LUCAS	IKER	LUCAS	LUCAS	LEO	IBAI
IRATI	ALAIA	NOA	MARTINA	JUNE	NOA	OIHAN	LEO	OIHAN	AIMAR	OIER	LUCAS
ANE	JUNE	NAHIA	NAHIA	SOFÍA	VALERIA	PABLO	OIER	HUGO	LEO	ENZO	ANDER
MARTINA	MARTINA	SARA	SARA	JULIA	MARÍA	MARKEL	PABLO	JAVIER	OIER	LUCAS	LEO
VEGA	JULIA	MARTINA	SOFÍA	LARA	NAHIA	ENZO	DANIEL	LEO	DANIEL	JAVIER	OIER
NOA	VEGA	OLIVIA	NOA	NOA	LAIA	IKER	MARKEL	OIER	NICOLÁS	MARKEL	DANIEL

Iturria: Nastat. Ugalkortasunaren eta Jaiotza Tasaren Estatistika INErekin elkarlanean.

¹ Martín izena, euskaraz, azentu-markarik gabe idazten da. Ustiapenean ez da bereizten. Eta estatistika-ohar honetan azentu-markarekin idazten ari gara.



SEXUAREN ARABERAKO BANAKETA

Neskak. *Lucía* da, berriz ere, 2025ean jaiotako neskentzat gehien erabilitako izena, eta 2022tik errepikatzen du posizio hori. Oraingoan 42 neskari eman zaie izen hori. *Nahia* eta *Sofía*, aldiz, 32 neskari eman zaie eta *Laia* 30i. Hurrengo posizioetan *Julia* eta *Irati* daude, 29 eta 28 kasurekin, hurrenez hurren.

Mutilak. 2025ean gehien jarritako izena *Aimar* da, 49 kasutan jarri baita, eta lekua kendu dio *Mateori*, bigarren posiziora jaitsi baita 42rekin. *Martín* hirugarren lekuan mantendu da 32rekin. Horien atzetik, erabilienak izan dira *Julen*, *Lucas* eta *Oihan*, eta bakoitza 28 mutili jarri zaie.

Igoerak. 2024an erregistratutakoekiko beritasun gisa, gehien erabilitako hamar izenen artean, nesken kasuan *Laia* eta *Noa* izenak itzuli dira. Mutilen kasuan, berriz, *Lucas*, *Oihan* eta *Enzo* itzuli dira.


Jaitsierak. Lehenengo hamar posizioetatik desagertu diren izenen artean, nesken kasuan *Alaia* eta *June* daude; eta mutilen kasuan, *Leo*, *Oier* eta *Daniel*.

NAFARROA 2000 ZONIFIKAZIOAREN ARABERA

Nafarroako Ipar Mendebaldean, nesken eta mutilen izenik ohikoenak *Laia* eta *Ekhi* dira, eta Pirinioaldean, berriz, hiru dira nesken izen ohikoenak: *Afrika*, *Eider* eta *Jimena* (mutilen artean ez dago errepikapenik). Iruñan *Aimar* eta *Lucía* dira gehien erabilitako izenak, eta Nafarroako Erdialdeko Ekialdean *Aimar* eta *Jon* dira gehien aukeratzen direnak, eta Estellerrian, berriz, *Mikel* eta *Laia*. Erriberagoienan *Martín* eta *Oussaid* dira mutilentzat gehien aukeratu diren izenak, eta *Julia*, *Irati* eta *Tasnim* dira neskentzat gehien aukeratutakoak. Tuteran *Hugo* nabarmentzen da mutilen kasuan eta *Yasmin*, *Julia* eta *María* nesken kasuan.

1. GRAFIKOA

Maizenik jartzen diren izenak Nafarroa 2000 Zonifikazioaren arabera (2025).



Iturria: Nastat. Ugalkortasunaren eta Jaiotza Tasaren Estatistika. INErekin elkarlanean.



IZEN-ANIZTASUNA

Nesken izenen aniztasunak mutilen izenena baino zabalagoa izaten jarraitzen du. 2025ean, 941 izen desberdin erregistratu ziren jaiotako 2.084 neskontzat, eta 957 izen desberdin jaiotako 2.346 mutilentzat.

Izen konposatuak. Bizirik jaiotako haur guztien % 15,3k izen konposatuak dituzte eta % 84,6k sinpleak. Nesken artean ohikoagoa da izen sinpleak aukeratzea, eta % 86,1i jarri zaizkie; mutilen kasuan, aldiz, % 16,6k izen konposatua dute.

2. TAULA

Bizirik jaiotako haurrak izen-motaren (sinplearen edo konposatuaren), arabera sailkatuta. Xehetasuna sexuaren arabera (2025).

	Sinplea	Konposatua	Ez dago jasota
Mutilak	83,3	16,6	0,1
Nesakak	86,1	13,8	0,1
GUZTIRA	84,6	15,3	0,1

Iturria: Nastat. Ugalkortasunaren eta Jaiotza Tasaren Estatistika. INErekin elkarlanean.

Izen konposatuetan ia ez da errepikapenik gertatzen: mutilen artean 378tik 8 bakarrik eta nesken artean 280tik 7. 2025ean mutilen artean gehien errepikatutako izen konposatua *Francisco Javier* da, eta nesken artean ez dago gehien errepikatzen den bat.

Izen konposatua erabiltzea ohikoagoa da, orain arte izan den bezala, atzerritar jatorriko² biztanleen artean; izan ere, atzerritar jatorriko gurasoak dituzten neska-mutil guztien % 30,7ri jarri zaie izen konposatua; espainiar jatorriko bikoteetako haurren kasuan, % 5,9ri jarri zaie. Bikote mistoetan maiztasuna % 28,3koa da.

HOMONIMIA

Izenak gutxiago errepikatzen dira belaunaldiz belaunaldi.

Homonimiak beheranzko joera jarraitzen du, eta 2025ean bizirik jaiotako haurren % 1,4an eman da. Aiten eta semeen artean % 2,1ekoa da eta amen eta alaben artean % 0,5ekoa.

2025ean jaiotako mutilei gehien jarritako aitaren izena *David* izan zen (5). Eta amen eta alaben kasuan, berriz, errepikatzen den izen bakarra *María* da (2).

ABIZENEN ORDENA

Gora egin du amaren abizena lehenengo hartzen duten neska-mutilen ehunekoak, eta 2025ean % 6,7koa izan da, 2024koa baino 7 hamarren handiagoa.

Erregistro Zibilaren Legearen Erreforma indarrean jartzeak (2017ko ekaina) ahalbidetu du amaren abizena lehenengoa izatea aitaren abizena transmititzeari dagokionez baldintza berdinetan.


² Ohar honetan, "jatorri" terminoa erabiltzen da "jaioleku" terminoaren sinonimo gisa.



Jatorri espainiarreko pertsonen osatutako bikoteak daude joera horren buruan, eta 2025ean % 8,0 izatera iritsi dira, nahiz eta goranzko joera guztietan izan den. Atzeritar jatorriko bikoteen kasuan % 5,0 izan dira 2025ean, eta jatorri mistoko bikoteen artean % 4,8.

2. GRAFIKOA

Bizirik jaiotako haurrak, amaren lehen abizena hartu dutenak (ehunekoa) (2014-2025).





OHAR METODOLOGIKOA

Ohar hau Nafarroako **Ugalkortasunaren eta Jaiotza Tasaren Estatistikako** datuetan oinarrituta egin da, eta Populazioaren Berezko Mugimenduaren Estatistiken parte da. Oinarrizko informazio-iturria erditze-buletinak dira. Horiek jaiotzak Erregistro Zibilean edo ospitaleetan inskribatzen diren unean betetzen dira eta Erregistro Zibileko arduradunek INEren probintzia ordezkarietzi helarazten dizkiete.

INEren eta Nastaten arteko lankidetzaz hitzarmen bati esker, ohar hau egiteko informazioa erabili ahal izan da, besteak beste, haur jaioberrien izenak aztertzeko.

Ohar hau egiteko, Nafarroan bizi diren emakumeengandik bizirik jaio diren eta Foru Komunitatean inskribatu diren haurren kasuei buruzko informazioa baino ez da aukeratu eta tratatu, eta, beraz, zifrak Ugalkortasunaren eta Jaiotza Tasaren Estatistikan argitaratutakoekiko zertxobait desberdinak dira. Nolanahi ere, behin-behineko datuak dira.

- **Eragiketa-mota:** Jarraitua, urtean behingoa
- **Esparru geografikoa:** Nafarroako Foru Komunitatea
- **Emitzen erreferentzia-aldia:** Urtea
- **Bilketa-metodoa:** Norberak betetako galdetegia.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Onomastika. Ugalkortasunaren eta Jaiotza Tasaren Estatistika. 2025. urtea.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00